ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko ekainaren 19a, ostirala • 69 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# AIARAKO UDALA

**Hasierako onespena ematea Aiarako Udalaren barne kontroleko arautegiari**

Udalbatzak, 2020ko maiatzaren 21ean balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Aiarako Udalaren barne kontroleko arautegiari.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena) 49. eta 70.2. artikuluetan eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena) 56. artikuluan xedatutakoa betetzeko, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan, interesa duen edozeinek aukera izango du espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada epe horretan, behin betiko onetsitzat emango da erabaki hau, udalbatzaren beste erabakiren baten beharrik gabe.

Arautegia indarrean sartuko da testua ALHAOn osorik argitaratzen denean.

Arespalditza, 2020ko ekainaren 9a

*Alkatea*
*GENTZA ALAMILLO UDAETA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.06.19 05:44:51 Z